

Julio Galarta Miguel Okina

Bi adiskide margolari
Dos amigos pintores

BERGARA 2022. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Irailaren 9tik 25era • Del 9 al 25 de septiembre

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

Bi adiskide margolarí: Julio Galarta eta Miguel Okina

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR

Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkartea

LAGUNTZAILEA COLABORADOR

Beart elkartea

BABESLEAK PATROCINADORES

Bergara eta Arrasateko Udalak Ayuntamientos de Bergara y Mondragón

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN

K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN

Bergarako eta Arrasateko Udalak Ayuntamientos de Bergara y Mondragón

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL

LG D 00991-2022

Julio Galarta 2011n hil zenetik, gure elkartea margolariaren lau erakusketa garrantzitsu antolatu ditu. Eta haren obra ezagutzen emateko gure helburuari jarraituz, interesgarria iruditu zitzaignon hasiera-hasieratik Galartaren ondoan egon zen artistarekin batera gogoratzea, arte eta adiskidetasun kontzeptuak azpimarratzu. Artista hori, jakina, Miguel Okina da.

Bearten jarrera irekiari esker, gidalerro batzuk eman ahal izan ditugu guretzat elkarrekiko leialtasun artistikoaren eta giza zintzotasunaren eredu izan zen harremanari buruz. Juliok eta Miguelek edo Miguelek eta Juliok elkar errespetatzen, elkar miresten eta elkarrekin gozatzen jakin zuten, eta esperientzia amankomun horiekin eratutako ondare guztiz identifikagarri bat laga ziguten.

Erakusketa honetan ikus ditzakegu bi margolarien artistikoki bizitako beren giza bizipen sentiberenen alderdi zehatzak. Bukatzeko, erakusketa hau posible izan da honako hauen desio onari esker: Okina familia, eta batez ere Josuri, Luis Laskurain bezalako lagun batzuk eta... eta Bergara eta Arrasateko Udalek emandako laguntzari esker.

Desde la muerte de Julio Galarta en 2011, nuestra Asociación ha organizado cuatro importantes exposiciones del pintor. Y siguiendo con nuestro objetivo de dar a conocer su obra, nos pareció interesante dedicar una muestra a plasmar la trayectoria conjunta con el artista que le acompañó desde los primeros momentos, haciendo hincapié en el significado de arte y amistad. Hablamos, claro, de Miguel Okina.

Gracias a la abierta disposición de Beart, hemos podido marcar unas directrices sobre lo que para nosotros fue un modelo de recíproca fidelidad artística y sinceridad humana. Julio/Miguel o Miguel/Julio supieron respetarse, admirarse y disfrutar conjuntamente, y nos dejaron un legado perfectamente identificable fruto de experiencias comunes.

Esta exposición recoge aspectos concretos de algunos de los momentos más humanos vividos artísticamente por ambos pintores. Y ella ha sido posible por el buen deseo de la familia Okina, y de manera especial de Josu, de amigos como Luis Laskurain y..., y a la ayuda prestada por los Ayuntamientos de Bergara y Mondragón.

Alvaro Arregi

JGPLE-ren Presidentea
Presidente de AAPJG

BI ADISKIDE MARGOLARI

Bi adiskideren elkarretaratze artistiko berritzat har genezake erakusketa hau. Goi jomuga helezin guztietatik urrun, bi margolari konprometitu, ausart, ameslari eta, batez ere, bidaideren ukondoz ukondoko ekarpena da aurkezten dena. Hamarkadetako elkarrekiko lanak bermatzen du Julio Galarta eta Miguel Okinaren arteko maila artistikoa. Eta hori nahikoa da, erakusketaren garrantzia azpimarratzeko.

Elkarren ondoan ageri zaizkigu iragan mendearen berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik. Arrasateko udalak eskatuta Galartak antolatutako pintura topaketetan ezin zen Okinaren hutsunerik egon. Gazteak ziren arren, euren presentziak kalitatea ekartzen zuen. Eta aitzindaritza artistiko hartan, pintzelekin bide bat egitea amesten zuten.

Artistaren zientzia osatzen duten diciplina ezberdinetaen trebatzeko beharraz jabetu ziren. Eta biek Eskola berera joatea erabaki zuten, beren helburuetan aurrera egitea ahalbidetuko zien jakintzaz jabetuta itzuliko zirela ziur. Bartzelonak hartu zituen eta bere seny berezia eskaini zien, inoiz galduko ez zuten izaera. Julio eta Miguel artistikoki hazi eta garatu ziren, eta egindako biziapustu hartatik abiatuta, hautemandako munduaren pertzepzio egokia, gaitasun kritikoa, ulermen eta dedikazioa lortu zituzten.

Eta bide independenteekin, eta batzuetan apur bat desberdinekin, Juliol eta Miguelek izan nahi izatea eta izatea bereizten dituen muga zeharkatu zuten, goraipatzeko moduko emate deigarriarekin, artista ospetsu eta txalotuak bihurtu dituena. Baino pintzelari emana zuten haien bizitzek ez zituzten banatu; aitzitik, aspaldiko adiskidetasuna bizienez eta impresioez ongarritu zuten etengabe, elkarrekin haztea erabaki izan balute bezala.

Erakusketa eta bilera artistiko askotan topo egin zuten. Elkarrekin margotu zuten, elkarrekin dibertitu ziren, zentzu guztietan, biek bizitza maite zutelako, beren jardunean beti erakutsi zuten bezala. Julio, serioa bere inguruko munduarekin zuen harremanean, agian oso erosoa izan ez zitzzion bizi-esperientzia batengatik. Miguel, berri, txantxa zalea, hezur mamirainoko bergarar gogoarekin. Ezberdinak baina antzekoak, eta agian osagarriak.

Bi adiskideek, elkarrekin egindako irteeretan, euskal paisaiak, Errioxakoak, Burgosekoak... islatzen zituzten, inguratzen zituen naturarekin harmonia bikainean, eta bisitatzen zituzten leku guztietan giro abegitsuaz eta gastronomiaz gozatuz. Behin eta berriz egin zuten topa adiskidetasunaren alde, eta abaguneak eskainitako orduak muturreraino luzatzen zituzten. Luis Laskurainek gogoratzen duenez, Okinak egindako Galartaren erretratuak ondo baino hobeto erakusten du beren adiskidetasuna gauza guztien gainetik zegoela.

Josemari Velez de Mendizabal

DOS AMIGOS PINTORES

Podríamos denominar a esta exposición como la nueva interacción artística de dos amigos. Lejos de pretensiones inabordables, lo que se presenta es la aportación artística de dos pintores comprometidos, valientes, soñadores y, sobre todo, compañeros de viaje. Décadas de bregar codo con codo garantizan el nivel de conocimiento artístico entre Julio Galarta y Miguel Okina. Y eso es suficiente, para subrayar la importancia de la exposición.

Sus nombres aparecen juntos desde los primeros años cincuenta del siglo pasado. En los encuentros de pintura organizados por Galarta a petición del ayuntamiento de Mondragón no podía faltar Okina. Aun siendo jóvenes valores, su presencia aportaba calidad. Y en aquella avanzadilla artística soñaban por labrarse un camino con sus pinceles.

Eran conscientes de la necesidad de formarse en las distintas disciplinas que conforman la ciencia del artista. Y ambos deciden marchar a la misma Escuela, seguros de volver a sus lares con un bagaje de conocimiento que les permita avanzar en sus objetivos. Barcelona los acoge y les brinda su particular "seny", carácter que no perderán nunca. Julio y Miguel crecieron y se desarrollaron artísticamente desde la apuesta vivencial que les permitió una adecuada percepción, capacidad crítica, comprensión y dedicación al mundo que habían elegido.

Y con caminos independientes y hasta en ocasiones ligeramente diferentes, Julio y Miguel cruzaron la frontera que separa el querer ser del siendo, con una dedicación digna de encomio, que los encumbra como renombrados artistas. Pero sus vidas entregadas al pincel no los separó, sino que la vieja amistad fue abonada en un constante revivir de experiencias e intercambio de impresiones, como si hubieran decidido crecer juntos.

Coincidieron en multitud de exposiciones, de reuniones artísticas. Pintaron juntos, se divirtieron juntos, en todos los sentidos, porque ambos amaban la vida y lo demostraban constantemente. Julio, serio en su relación con el mundo que le rodeaba, quizás condicionado por una experiencia vivencial no muy cómoda. Miguel socarrón, con alma bergaresa hasta el tuétano. Diferentes pero semejantes, puede que complementarios.

Paisajes vascos, riojanos, burgaleses... fueron plasmados por los dos amigos en su periplo en común, en excelente armonía con el medio que les rodeaba y gozando de las excelencias hospitalarias y gastronómicas de las zonas visitadas. Brindaron una y otra vez por la amistad, alargando hasta el límite las horas que la ocasión les propiciaba. Como suele recordar Luis Laskurain, el retrato de Galarta realizado por Okina es el mejor exponente de que su amistad estaba por encima de todo.

Josemari Velez de Mendizabal



Miguel Okina
Olio-pintura zurezko oholean
Óleo sobre tablilla de madera
61 x 50 cm



Julio Galarta
Olio-pintura zurezko oholean
Óleo sobre tablilla de madera
65 x 54 cm



Barrundia - Araba (Miguel Okina)

Olio-pintura zurezko oholean

Óleo sobre tablilla de madera

55 x 38 cm



Barrundia - Araba (Julio Galarta)

Olio-pintura zurezko oholean

Óleo sobre tablilla de madera

55 x 46 cm



Aramaiotik - Araba (Miguel Okina)

Olio-pintura zurezko oholean

Óleo sobre tablilla de madera

46 x 38 cm




Etxaguen - Araba (Julio Galarta)

Olio-pintura zurezko oholean

Óleo sobre tablilla de madera

55 x 46 cm



Anguciana- Errioxa (Miguel Okina)

Olio-pintura zurezko oholean

Óleo sobre tablilla de madera

55 x 46 cm



Olexoako Txokoa - Nafarroa (Julio Galarta)


Olio-pintura zurezko oholean

Óleo sobre tablilla de madera

46 x 55 cm



Itsasoa (Miguel Okina)
Olio-pintura zurezko oholean
Óleo sobre tablilla de madera
55 x 38 cm



Itsasoa (Julio Galarta)
Olio-pintura zurezko oholean
Óleo sobre tablilla de madera
55 x 46 cm



Bodegoia (Miguel Okina)
Olio-pintura zurezko oholean
Óleo sobre tablilla de madera
61 x 50 cm



Bodegoia (Julio Galarta)
Olio-pintura zurezko oholean
Óleo sobre tablilla de madera
55 x 46 cm

MIGUEL OKINA

(1924-2021)

Miguel Okina Bergaran jaio zen 1924an. Txikitikitik pinturak erakarria, artearen iturburura jo zuen barne prestakuntza lortzeko asmoz. Paris, Madrid eta, azkenik, Bartzelonan aritu zen, eta berrogeietatik adiskide zuen Julio Galartarekin batera, pintura teknikaz jabetu zen. Bergarako arte uhinaren erreferentea bilakatu zen Okina hurrengo urteetan. Margotzea izan zen bere helburu eta baita bizimodua ere eta alde horretatik beti sentitu zen aintzatetsia. Artista joria izan zen, erakusketa ugari egin zituen eta gaur egungo artisten sorreran bultzatzale izan zen.

Miguel Okina 2021ean hil zen.

Miguel Okina nació en Bergara en 1924. Atraído por la pintura desde edad temprana, optó por prepararse en los escenarios más idónes, y así pasó por París, Madrid y, por último, Barcelona , en donde, junto a Julio Galarta a quien ya unía una sólida amistad que se remontaba a una década anterior, se hizo con los conocimientos teóricos que le ayudarían en su camino artístico. Okina se convirtió en los años siguientes en referente de la ola artística bergaresa. Pintar fue su objetivo, ilusión y su forma de vida y en ese sentido siempre se sintió correspondido. Artista pródigo, realizó cantidad de exposiciones y fue impulsor en la irrupción de artistas locales actuales.

Miguel Okina murió en 2021.

JULIO GALARTA

(1917-2011)

Zizurkilen 1917an jaio arren arrasatear petoa genuen Julio Galarta. Arrasateko eskola desberdinatik igaro ondoren, artean gaztea zela RONEO enpresan hasi zen lanean eta bertan jubilatu ere. Auskalo zer izango zen maisu margolaria, bere afizioan aurrera egiteko enpresan aurkitu zuen laguntzarik izan ez balu. Joan den mendeko berrogeita hamarrekoen hamarkadan Bartzelonako San Jorgeren Arte Ederren Goi Eskolan ikasi zuen, eta Miguel Okina lagun handiarekin bat egin zuen. Harrezkero, hainbat erakusketa egin zituen, bakarka zein taldeka. Hil ondoren, Galartaren lana bere izena daraman elkartearen bidez zabaltzen jarraitu da.

Julio Galarta 2011n hil zen.

Julio Galarta fue un mondragonés de cuerpo y alma, nacido por circunstancias en Zizurkil, en 1917. Tras sus primeros estudios, siendo todavía joven, se incorporó a la empresa RONEO donde se jubiló. Quién sabe qué hubiera sido del maestro pintor si no hubiera tenido la ayuda que encontró en la empresa para seguir adelante con su inclinación por el arte pictórico. En los años cincuenta del pasado siglo cursó estudios en la Escuela Superior de Bellas Artes de San Jorge (Barcelona) donde coincide con su gran amigo Miguel Okina. Y desde entonces fueron innumerables las exposiciones que realizó en vida, tanto individuales como colectivas. Tras su muerte también ha seguido divulgándose su obra a través de la Asociación que lleva su nombre.

Julio Galarta falleció en 2011.

Julio Galarta Miguel Okina

Bi adiskide margolari
Dos amigos pintores

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
igande eta jaiegunetan	18:00 - 20:30 12:00 - 14:00



AROZTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

